ESKOLA-EREMUAN EMANDAKO "KERIK GABEKO GAZTEAK" PROGRAMAREN MATERIALAK DISEINATZEKO XEDE DUEN ADMINISTRAZIO-KONTRATUAREN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA.

1.- SARRERA

"Kerik Gabeko Gazteak" "Kerik Gabeko Euskadi" programaren barruan dagoen ekimena da. Bere **helburua, gazte eta nerabeek tabako-produktuen eta nikotina aska dezaketen gailuen** (DSLN) (zigarreta elektronikoak edo bapeadoreak) kontsumoak osasunerako dakartzan arriskuen berri ematea da, hauen **kontsumoren hasiera saihesteko edo atzeratzeko.** Euskadiko ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako **6. mailako eta DBHko lehen zikloko (1. eta 2.mailako) ikasleei zuzendutako** programa bat da.

Programa hau, **ikasgelan irakasleen laguntzarekin**, tabako-produktuen kontsumoak eta nikotina askatzen duten gailuen erabilerak osasunean izan ditzakeen **arriskuak lantzean datza**, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzako Adikzio Zerbitzuak eskaintzen duen material didaktikoa oinarri hartuta.

Baldintza teknikoen agiri honetan**, "Kerik Gabeko Gazteak" programan sartutako material didaktikoek bete beharreko ezaugarriak deskribatzen dira**.

2. KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

2.1- XEDEA

Tabako-kontsumoa murrizteko eta eskola-umeak kontsumitzen hasteko adina atzeratzeko prebentzio-programarako material didaktikoa diseinatzea. Materiala formatu elebidunean aurkeztu beharko da (gaztelaniaz eta euskaraz), eta irakatsiko duten irakasleei eta ikasle hartzaileei egokitu beharko zaie: Lehen Hezkuntzako 6. maila eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailak (DBH).

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS DEL CONTRATO ADMINISTRATIVO QUE TIENE POR OBJETO DISEÑAR LOS MATERIALES DEL PROGRAMA "KERIK GABEKO GAZTEAK" IMPARTIDO EN EL ÁMBITO ESCOLAR

1.- INTRODUCCION

La iniciativa **"Kerik Gabeko Gazteak" está integrada** en el **programa "Euskadi libre de humo"** cuyo objetivo es **evitar o retrasar el inicio de consumos** informando y sensibilizando a la **juventud** de los riesgos para la salud derivados del consumo de los productos del **tabaco y de los dispositivos susceptibles de liberación de nicotina** (DSLN), conocidos también como cigarrillos electrónicos o vapeadores. El programa se dirige al alumnado de **6º de Educación Primaria y primer ciclo de ESO (1º y 2º)** de los centros educativos de Euskadi.

Mediante este programa, y con la **implicación del profesorado, se aborda en el aula los riesgos** para la salud asociados al consumo de productos de tabaco y al uso de dispositivos que liberan nicotina, utilizando para ello el material didáctico proporcionado por el Servicio de Adicciones de la Dirección de Salud Pública y Adicciones del Departamento de Salud del Gobierno Vasco.

En este pliego de condiciones técnicas se describen las **características que deben cumplir los materiales didácticos empleados en el programa "Kerik Gabeko Gazteak".**

2.- ELEMENTOS DEL CONTRATO

2.1- OBJETO

El objeto de la presenta contratación es el diseño de material didáctico destinado al programa de prevención para disminuir el consumo de tabaco y retrasar la edad de inicio en población escolar. El material deberá presentarse en formato bilingüe (castellano y euskera), adaptado al profesorado responsable de su impartición y al alumnado destinatario: 6º de Educación Primaria y 1º y 2º de Educación Secundaria Obligatoria (ESO).

2.2.- MATERIALAREN EDUKIAK ETA EGITURA: ➢ Programan erabilitako material didaktikoa diseinatzea eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren webgunean eskuragarri dagoen egungo materiala eguneratzea. ➢ Edukia unitate didaktiko egituratuetan antolatzea, oinarrizko mailak eta maila aurreratuak bereizita. ➢ Koherentzia pedagogikoa, adinaren araberako egokitzapena eta zorroztasun zientifikoa bermatzea eduki guztietan.	**2.2- CONTENIDOS Y ESTRUCTURA DEL MATERIAL:** ➢ Diseñar el material didáctico utilizado en el programa actualizando el material actual disponible en la web del Departamento de Salud de Gobieno Vasco. ➢ Organizar el contenido en unidades didácticas estructuradas, diferenciando niveles básico y avanzado. ➢ Asegurar la coherencia pedagógica, adecuación por edades y rigor científico en todos los contenidos.
2.3- METODOLOGIA DIDAKTIKOA: Materialak metodologia aktiboak izan beharko ditu, gutxienez: ➢ Gidatutako eztabaidak. ➢ Rol-jokoak. ➢ Aurkezpen interaktiboak. ➢ Pentsamendu kritikoa, talde-presioa eta erabaki osasungarriak hartzera bideratutako partaidetza-jarduerak	**2.3- METODOLOGÍA DIDÁCTICA** El material deberá incorporar metodologías activas, incluyendo al menos: ➢ Debates guiados. ➢ Juegos de rol. ➢ Presentaciones interactivas. ➢ Actividades participativas orientadas al pensamiento crítico, la presión grupal y la toma de decisiones saludables.
2.4- HARTZAILEEI EGOKITZEA: Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 1. eta 2. mailako irakasleak eta ikasleak, hizkuntza irisgarria eta dagokion maila kognitibora egokituak.	**2.4- ADAPTACIÓN A LOS DESTINATARIOS:** Profesorado y alumnado de 6º de Primaria y 1º–2º ESO con un lenguaje accesible y adaptado al nivel cognitivo correspondiente.
2.5- HIZKUNTZA-BALDINTZAK: Material guztia elebitan entregatu beharko da (euskaraz eta gaztelaniaz), eta bi hizkuntzetako idazkerak naturala eta hezkuntza-testuingururako egokia izan beharko du.	**2.5- REQUISITOS LINGÜÍSTICOS:** Todo el material deberá entregarse íntegramente en bilingüe (euskera - castellano) y la redacción en ambas lenguas deberá ser natural y adecuada al contexto educativo.
2.6- ENTREGA-FORMATUA: ➢ Material didaktikoa formatu digital editagarrian (Word, PowerPoint edo baliokideak). ➢ Azken bertsioa PDF formatuan, banaketarako prest. ➢ Ikastetxeentzako gida bi formatuetan (formatu editagarria eta PDF formatua banaketarako prest). ➢ Elementu elkarreragile guztiak erabiltzeko beharrezkoak diren iturri-fitxategiekin batera entregatu beharko dira.	**2.6- FORMATO DE ENTREGA:** ➢ Material didáctico en formato digital editable (Word, PowerPoint o equivalentes). ➢ Versión final en PDF listo para distribución. ➢ Guía para centros en ambos formatos (formato editable y formato PDF listo para distribución). ➢ Todos los elementos interactivos deberán entregarse junto con los archivos fuente necesarios para su uso.
3.- ENTREGATZEKO BALDINTZAK: ➢ Jarraipen-bilerak: gutxienez hiru bilera egingo dira erakunde kontratatzailearekin, aurrerapenak baliozkotzeko.	**3.- CONDICIONES DE ENTREGA** ➢ Reuniones de seguimiento: se realizarán al menos 3 reuniones con la entidad contratante para validar avances.

➢ Entrega partzialak: • Hasierako zirriborroa: kontratuaren lehen hiruhilekoan entregatuko da. • Berrikusitako bertsioa: kontratuaren bigarren hiruhilekoan entregatuko da. • Behin betiko bertsioa: azken lanarekin batera, ikastetxeentzako **gida** oso bat entregatu beharko da, honako hauek jasoko dituena: - Programarako sarrera. - Landutako helburuak eta hezkuntza-gaitasunak. - Beharrezko materialak. - Ikaskuntza ebaluatzeko jarraibideak.	➢ Entregas parciales: • Borrador inicial: se entregará en el primer trimestre del contrato. • Versión revisada: se entregará durante el segundo trimestre del contrato. • Versión definitiva: junto al trabajo final se deberá entregar una **guía** completa para centros educativos, que incluya: - Introducción al programa. - Objetivos y competencias educativas trabajadas. - Materiales necesarios. - Indicaciones para la evaluación del aprendizaje.
➢ Zuzenketak: erakunde kontratatzaileak eskatutako zentzuzko aldaketa guztiak sartuko dira, kostu gehigarririk gabe, azken baliozkotzea egin arte.	➢ Correcciones: se incluirán, sin coste adicional, todas las modificaciones razonables solicitadas por la entidad contratante hasta la validación final.
Materiala Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzako Adikzioen Zerbitzura bidali beharko da. **Formatu digitalean** aurkeztuko da, deskargatu eta web-orrian argitaratu ahal izateko, eta **helbide elektroniko** honetara bidali beharko da: **adicciones@euskadi.eus**	El **material deberá remitirse** al Servicio de Adicciones de la Dirección de Salud Pública y Adicciones del Departamento de Salud del Gobierno Vasco. Se presentará en un **formato digital** que permita su descarga y posterior publicación en la página web y deberá remitirse a la siguiente **dirección de correo electrónico**: **adicciones@euskadi.eus**
4.- KONTRATUAREN IRAUPENA: Kontratu honen iraupena k**ontratua formalizatzen denetik 9 hilabetekoa** izango da.	**4.- DURACION DEL CONTRATO** La duración del presente contrato será de **9 meses desde la formalización del contrato.**

Vitoria-Gasteizen, sinatzen den egunean.
En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma.

GUILLERMO IGNACIO HERRERO ALAÑA - 14254007X

Firmado digitalmente por GUILLERMO IGNACIO HERRERO ALAÑA - 14254007X
Fecha: 2026.03.03 13:07:32 +01'00'

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaria

Director de Salud Pública y Adicciones

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tfno. 945 01 92 01– Fax 945 01 91 92 – E-mail: dirsalud-san@euskadi.eus